


UN SILENCE / A SILENCE • BELGIKA - FRANTZIA - LUXENBURGO

Joachim Lafosse (zuzendaria eta gidoilaria)
Emmanuelle Devos, Matthieu Galloux eta Jeanne Cherhal (antzezleak)
Anton Iffland Stettner eta Eva Kuperman (ekoizleak)

Lafosse: “Isilean gordetako sekretuak beti azaleratzen dira”

SERGIO BASURKO

Les chevaliers blancs filmarengatik zuzendaritza onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi eta zortzi urtera, Joachim Lafosse Ofizialean lehiatzera etorri da berriz ere. Oraingo honetan, isilpean gordetzen diren gertaerek eztanda egiten dutenean etortzen diren tragediak hizpide dituen film batekin.

Lafosse azaldu duenez, Belgikan jazotako pedofilia kasu erreal batean du oinarri filmak: “Gertakari hau barruraino iritsi zitzaidan eta une batean ohartu nintzen aukera ematen zidala krimen honen pozoira iristeko. Eta pozo horren inguruan dagoen guztia, lotsa, eta horrek sortzen dituen ondorioak”.

Ikuslea protagonistak epaitzera eraman nahi izan ez duela azaldu du zuzendariak. Eta gidioa lantzean hori kontuan hartu duela: “Gidoian hitz gutxi daude, baina idazketak badu zerikusia isiluneekin, keinuekin... gauza batzuk ikusarazi behar dira, pert-



Joachim Lafosse bere filmeko antzezle nagusiekin.

JORGE FUENBUENA

sonaiek zer bizi duten erakutsi behar dut antzeleen bidez”, azaldu du.

Filmatzen hasi aurreko entseguetan Devos antzezle nagusiarekin izan dituen elkarrizketa eta eztabaidak nabarmendu ditu, berea

baita, zuzendariaren hitzetan, pertsonaiarik konplexuena: “Senar pedofiloa (Auteuil) ez da gehiegi aldatzen, hori da bere logika perbertsoa. Baina Astrid emaztea (Devos) heroia da; jarrera aldaketa bat hartzen du;

bere pasibitatea utzi egiten du familiaren egonkortasuna pitzatzen ari dela ikustean. Bera baitzen familian gordetzen ziren sekretuen eramailea”.


Antzezleek ere hitz egin dute euren pertsonaieiz. Devosek Lafossearekin eztabaida ugari izan zituela berretsi du, horrek filmari ekarri dizkion onurak goratuz. “Istorio guztia hainbatetan errepasatu genuen... metodologia horri jarraituz ikusi egin baitugu nola hobetu genezakeen filma”. Ama-semeen rolek “prestakuntza ikaragarria” eskatu dutela ere nabarmendu du Devosek.

Bere aldetik, Matthieu Galloux aktore gazteak, zinemaren munduan izan duen lehen esperientzia denez gero konparaketak egiteko baliabiderik ez duela esan du, “baina esan dezaket espontaneitatea baliatu dudala, nire rolean inportantea dela us-te dudalako. Nire modura antzezten ahalegindu naiz», adierazi du.

Nolanahi ere, azkenean, “isilean gordetzen diren sekretuak beti azaleratzen dira”, amaitu du Lafosse.

A filmmaker with a moral compass

Joachim Lafosse, who won the Silver Shell here for best director in 2015 has been inspired by the so-called Hissel Affair, concerning a lawyer acting for parents of children killed by the paedophile Marc Dutroux, to make his latest film *Un silence* which he presented yesterday in the Kursaal. “I realised that I could make use of this case to describe this evil crime and its consequences” the director explained. He said he was aware that a news item couldn’t be automatically turned into a film and this is why he created three new fictional characters: a lawyer with a terrible secret; a son who knows nothing about this and a wife who has kept silent about it for 25 years. “I hope my cinema isn’t moralistic but I do have a moral compass,” Lafosse confessed after being asked about the wife’s possible complicity on not revealing her husband’s secret.



Laserfilm se encargará del subtulado de la película ganadora

Laserfilm will provide subtitling for the winning film

